



Andoain, 2021-11-04

***“Kazetaritza saria” eta “Komunikazio saria” emango dira, eta bakoitzerako lau finalista izendatu ditu epaimahaiak***

## **2021EKO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK BADITU ZORTZI FINALISTA**

**Azaroaren 19an izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, “Martin Ugalde gogoan” lelopean, eta han jakingo da nortzuk diren aurtengo saridunak**

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu ditu aurtengo finalistak. Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak, bederatzina mila eurokoak: “Kazetaritza saria” bata, eta “Komunikazio saria” bestea. Bi sarietarako launa finalista izendatu ditu epaimahaiak. Zortzi finalista horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo RAKSen saridunak. Hona finalistak:

<b><i>Kazetaritza saria</i></b>
Berria egunkarian argitaratutako <i>Ahomentan</i> elkarrizketen seriea
Beñat Zalduak idatzitako <i>Nola iritsi gara honaino</i> seriea (Gara)
Zaballako espetxetik egindako <i>Faktoria</i> saioa (Euskadi Irratia)
Urtzi Urrutikoetxeak idazten duen <i>Leku-Lekutan</i> izeneko atala (Berria)

<b><i>Komunikazio saria</i></b>
Oier Aranzabalen <i>Barruan gaude</i> podcast-a
<i>Basilika</i> podcast-a
<i>3000twitz</i> kolektiboa
<i>Pantailak euskaraz</i> egitasmoa

Finalisten artean azkenean bi saridunak nortzuk diren -Kazetaritza sariko irabazlea bata eta Komunikazio sarikoa bestea- sari banaketa ekitaldian jakingo da. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 19an izango da, ostiralarekin, Andoainen, Bastero Kulturgunean, iluntzeko 7etan egingo den ekitaldian. Finalistak ere bertan izango dira, eta beraiek ere orduan jakingo dute, ez lehenago, nortzuk diren saridunak.

Aurtengo sari banaketa ekitaldiak gogoan izango du Martin Ugalde bere jaiotzaren mendeurrenean. Martin Ugaldereen lana aitortu eta eskertzeko ere baliatuko da, beraz, RAKSen azaroaren 19ko sari banaketa ekitaldia.

Finalistak izendatu dituen eta sariak erabakiko dituen epaimahaia ondorengoek osatzen dute: Itxaro Borda (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), Aingeru Epaltza (idazlea eta hainbat hedabidetako kolaboratzailea), Maite Goñi (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua), Elixabete Larrinaga (UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko irakaslea), Ion Muñoa (Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Gradu irakaslea), eta Jon Sarasua (MUko HUHEZIKo irakaslea eta komunikazioan aditua). Mahaiburua Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna, Alexander Huitzi, eta idazkaria, Arantza Aguado, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria dira.



**Andoaingo Udala**

**Euskara Zerbitzua**